



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL  
COMITÉ VASCO DE FUTBOL SALA

2009/10 DENBORALDIA

## 25. ZIRKULARRA

### ARETO FUTBOLEKO GAZTE EUSKAL KOPA

Areto-Futboleko Euskal Batzordeak, denboraldi honetarako lehiaketen Planean ezarritakoari jarraiki, lehiaketa hau ondorengo arauekin antolatuko du:

#### **1. KLUB PARTAIDEAK**

Bizkaia eta Gipuzkoa Lurraldean lehenengo sailkatutakoak gazte mailan parte hartuko dute.

#### **2. LEHIAKETA-SISTEMA**

Bi talde hartuko dute parte, Areto-Futboleko Euskal Batzordeak erabakitako joko-eremuan.

Partida, nahitaez baloi ofizialarekin lehiatu beharko dira, zein "ASTORE" eredua baita.

Taldeak joko-eremuan partiduaren hasierarako adierazitako ordua baino gutxienez ordu erdi lehenago aurkeztu beharko dira, denbora hau epaileari nahiz kronometratzaileari baimenak aurkezteko eskatzen den nahitaezko minimoa izanik.

Joko-pista jarduerarik gabe eta libre egon beharko da taldeek beroketa zilegi egiteko, partidua hasi baino hamabost minutu lehenago.

Partidu bati hasiera eman ahal izateko, talde bakoitzak joko-eremuan, eta partidua jokatzeko prest, gutxienez sei jokalaria aurkeztu beharko ditu, taldeko ordezkari batez gainera dagokion lizentziarekin.

#### **3. BERDINKETAK**

Aldizkako berdinketak FVF-EFF - aren Araudi Nagusiak zehazten duen moduan ebatziko dira.

... / ...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL  
COMITÉ VASCO DE FUTBOL SALA

- 2 -

#### **4. DATAK**

Ekainaren 13an, goizeko 11. 00tan, Eskoriatzako Intxaurtxueta. Polikiroldegian

#### **5. ARBITROAK**

Areto Futboleko Epaileen Euskal Batzorde Teknikoak egingo du epaileen izendapena. Dagokion erreziboaren ordainketa Areto Futboleko Euskal Batzordearen kontura burutuko da.

#### **6. DIZIPLINA-BATZORDEA**

Partidua amaitzen denean, akta arbitrala Euskal Batzorde honetara igorriko da, presazko postaz, posta elektronikoz edota fax bidez, Epaile Bakarrak bere akatsa igorri eta jakinarazi dezan, hala balegokio. Akta AFEB-ren esku egon beharko da astearteko 18.00ak baino lehenago.

Hau guztia klub lehiakide, Bizkaiko Fútbol Federakundea, Gipuzkoako Areto Futboleko Batzordea eta Aretoko Futboleko Epaileen Euskal Batzorde Teknikoari jakinarazten zaie, bere ezagutzarako eta dagozkion ondoriotarako.

2010 ko maiatzak, 18 Bilbon



JON ANDER GAMBOA AGUIRRE  
Secretario General